


Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZAR

366n. zenbakia • 2010 Abendua



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

## Aurtxo polita

aurtxo polita seaskan dago,  
zapi xuritan txit bero.

Amonak dio: ene potxolo,  
arren egin ba lo.

Txakur aundia etorriko da  
zuk ezpadazu egiten lo;  
orregatik, ba, ene potxolo,  
egin agudo lo.

Lo, lo, lo!!

Zorion eta urte barri on

# Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

## 2010-2011 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 43. IKASTAROA  
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo  
astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2

urrutizkiña 423 53 22

Bilbao

Asiera: urriaren 11an

**43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Días: lunes, miércoles y viernes,  
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2

Teléfono 423 53 22

Bilbao

Comienzo: 11 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**  
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.  
Ez dozu ezer be idatzi bear.  
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.  
Eskerrik asko!

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA


Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkiña : 944 235 322

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila  
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

[www.flashcomposition.com](http://www.flashcomposition.com)

Euskalerrian etxeke jaiak ugari egiten izan doguz eta olako egunetan etxeke andrea izaten zan sukaldari eta guztiontzat pozbide. Jaiak aitatu baiño ez doguz egingo. Gero gabonak astiroago aztertzeke. Oneik dira egun aundiak: Gari-jotea, matsa batzea, txarria iltea, zezifia iltea, erriko jaiak eta gabonak.

Etxekoandreak olako egunetan alegiñak egiten ebazan janari gozoak gertatzeko, baiña alegin ori aundiagoa zan gabon-gabeen.

Gaur ez da egingo gabon-aparirirk zizki-mizkiak edo "entremesak" bagerik, baiña oitura ori ez da euskaldun zarrena.

Jatorduaren asieran indaba-zopea jaten zan, egun askotan eta Gabon-gabeen be bai. Ara zer dan: Indabak saldatsu egozi, saldea kendu eta salda orretarara ogi-zopak egin, egozi eta jan.

Urrengo azea. Berez azea urdaiagaz gertatzen zan. Orregaitik esaten dabe Gaztelan "Azea eta urdaia, da janaria Bizkaian" "Berza y tocino, manjar de vizcaino". Baiña lentxuago gabon eguna aragi-izte ta barau eguna zan lez, orio-azea jateko oiturea sartu zan. Aspaldion azea baiño naiago izaten da aza-lorea edo "koliflora". Onen ondoren toki askotan, batez be Gipuzkoan antxiñatik, marrazkilloak edo karakolak jaten dira.

Berrogei ta amargarren urte-inguruan janari ospetsua zan oillaskoa, gudaren ondoren estuak igarota gero, baiña aspaldion galdu dau oillaskoak izen aundi ori.

Ondoren, gure sendi guztietan jaten izan da intxaur-saltzea. Ara zelan gertatzen dan: Esnea, intxaurraren barruak erre laban, eta gero auts biurtu almezian, ogi birrin erreka bota, ur apur bat bear badau, kanelea, azukarea eta ondo irabiatu egozi-arte. Eta maira atera ez otz eta ez bero, epel.

Onen gaiñean albimerea jaten zan (almibar edo konpota).


Danean agiri da aurrerapena. Euskaldunak txiroago bizi giñanean, abestiak iñoana beteten zan, gaztañak jatordu-osteko zirala: "Ator, ator, mutil etxera, gaztañña zimela jatera, gabon-gaba ospatutzeko, aitaren eta amaren ondoan..."

Amaitzeko, turroia jateko oiturea sartu da azkenengo gizaldian, gero akeita eta abar...

OLAZAR'tar Martin (†)

# Gabonetako janariak

# Regina Brette-ek idatzia




(90 urtekoa, "The Plain dealer" en argitaratua, Cleveland, Ohio")

- \*Adinean erabat aurrera noala eta ospakizuna egiteko, bizitzatik jasotako irakaspén batzuk idatzi dodaz.
- \*Bizitza ez da justua, baña alan da be onuragarria bai.
- \*Bizitza laburregia dozu, norbait gorrotatzen denbora galtzen ibilteko.
- \*Gaxotuten zaranean zure lanek ez zaitue zainduko. Bai, ordea, sendia ta lagunek. Landu artuemona, eurekin.
- \*Eztabaida bakoitza ez da alabearrez irabazi bear. Desasostasunak onartu bear-ko dozuz.
- \*Negar, norbaiten babesean egin. Bakarrean jardutea baño ariñagoa da-ta.
- \*Txolkolateak erakarten zaitunean, utsa dozu ezetzean tematzea.
- \*Onartu egizu iragana, bestela oraingoa ondatuko jatzu.
- \*Ez ipini zure bizitza besteen balantzan. Ez dakizu-ta euren ibilbidea zelangoa dan.
- \*Obe ez astea, isilpean landu bearreko artuemona.
- \*Sakon arnastu. Burmuña nasaituko jatzu.
- \*Alboratu egizu baliagarri, alai ala eder ez dan guztia.
- \*Kaltetuten ez zaitunak, sendoago egin zagike.
- \*Iñoz ez da berandu zorioneko bizitza gozatuteko. Bigarreanean, ordea, zeuk aukeratua.
- \*Bizitzan erabat maite dozuna lortutakoan, ez onartu "ezezko erantzunik".
- \*Kandelak biztu, izera politak erabilli eta barru soñeko garestia jantzi. Ez laga beste aldi berezi baterako.

- \*Gaur da zure momentu apartekoa.
- \*Izan orain, neurritz aragokoa. Ez itxi zaar izango zaranerako.
- \*Sexu zatirik garrantzitsuena burumuña da.
- \*Ondamen guztieri iruzkin au ipini: Bost urtetara garrantzirik izango ete dau?
- \*Guztieri, dana parkatu.
- \*Ez keskatu, bestek zutaz zer diñoen.
- \*Denborea...ia dana da. Emon astia denborari.
- \*Egoera onean zein txarrean, egunen baten aldatu be- arko dau.
- \*Ez artu zeurea ain estu. Besteak ez dira ainbeste saia- tuten.
- \*Ez ipini bizitza ezbaian. Bizi, eta naiko dozu eginerokoari alik eta etekin andiena atareaz.
- \*Azkenean benetako garrantzia artuko dauena, zein maita- sun neurria euki dozun, izango da.
- \*Urten kanpora egunero. Mirariak edozein tokitan dozuz zain.
- \*Gure arazo aurrean, besteenak pillatuko bageunkez, geureak gurago geunkez.
- \*Bekaizkeria denbora galtze utsa da. Bearreko dozun guztia zure esku dozu.
- \*Onena ondiño ezegute- ko daukogu.
- \*Ez zaitez kezkatu zelan sentitzen zaran. Atondu eta aurrera.
- \*Emon amore.
- \*Bizitzak ez dauka lokarri ederraren antza, baña oparia da.
- \*Gitxi gora bera, %ko 93k ez dabe mezu au besteei bialduko.
- \*Bialdu dabenek %ko 7a artean ba zagoz, ekin zure lanari.
- \*%ko 7 a artean nago.
- \*Adizkideak dira guk aukera geinken Sendia.

(Patxi Otamendik euskeratua)



# Tuaregtar batekin berbetan

**E**ztaikit nozkoa nazan. Saharako basamortuan jaiotzen nintzan. Paper barik... Amak ekarri ninduen Tuaregtarrek Tombuctú ta Gao arteko karpak aldagarri batean. Maliko iparraldean.

Gamelu artzaia izan naiz, baita nire aitaren aunts, ardi eta bei taldeana. Gaur egun Montpellierrreko Unibertsitatean, Gestioa ikasten nabil.

Tuareg artzainen aldekoa naiz. Maoma zale baña baketsua.

- Bai turbante ederra dozuna!
- Algodozko tela fina da. Beragaz babestu geinke arpegie ondarra astintzen danean ikustea kendu barik, arnasea artuaz batera.
- Urdin diztiratsua benetan ...
- Tuaregtarrak gizaki urdina garala esaten deuskue, teleak/eunak tintea zerbait galduaz, azalak urdin kolorea artuten dau.
- Zelan lortuten dozue anil erako urdin ain bizia?

- Indigo izeneko landare bidez ostantzeko kolore naturalakaz nasturik.

Tuaregtarrentzako urdina munduaren kolorea da.


- Zergaitik ori?
- Kolore nagusia dalako: gure etxearen tellatu zerupekoana.

- Nortzuk dira tuaregtarrak?

- Tuareg esan gure dau "bastartua" basamortuko erri aldagarria garalako, bakartia, artoa: "Basamortuko Usabak" diñozkuena. Gure enda amazig (bereber) da ta tifiñagh alfabetoera daukagu.

- Zenbat dira?

- Iru milloi gitxi gora bera, ta geienak aldagarri. Alan da be gero eta gitxiago dira... Jakintsu baten esanetan "beurrezkoa da erri bat desagertzea, ba zala jakiteko" Ni alegintzen naiz erri onek iraun dagian.



- Zertan ari dira?
- Gamelu talde artzaintzan, bai eta auntza, ardi, bei eta asto, mugabako lurralde ixillean
- Orren ixilla ete da basamortua?
- Bakarrik ba zagoz ango ixilaldian, zure biotza-  
ren taupadak be entzuten dozuz.
- Zer gogoratzen dozu ondoen zure autzaroan?
- Eguzkiegaz itxartutea. Aitaren auntzak ikustea. Eurek emoten deuskue esnea ta okelea. Guk ura ta bedarra dagon lekura eroaten doguz. Alan egin eban nire bir aitetek, nire aitetek eta nire aitek... Eta nik. Ez egoan beste gauzarik munduan eta guztiz zoriontsu bizi nintzan bertan.
- Ba, ez tirudi ain erakargarria danik!
- Bai, eta ez gitxi. Zazpi urtegez karpamentutik urrindu zeintekoz. Orretarako gauza garrantzitsu batzuk erakusten deusuez: aidea usmetutea, entzutea, ikusmena zorrozutea, eguzki eta izarren arabera bideratutea...Eta gameluari jarraitutea. Beronek, galdu arren, ure dagon lekura zuzenduko zaitu.
- Ori guzti ori jakitea baliagarria da benetan.
- Basamortuan azaleko ta sakona da guztia. Gauza gitxi baña bitxia beti be.
- Beraz, alde andia ete dago mundu onetatik ango alderdietara?
- Basamortuan gauza txikerrenagaz be zoriontsu zara. Artu emon bakoitza balio andikoa dozu. Sekulako alaitasunaz betetan gaitu alkar ikututeak, alkar egoteak. Ez dago amestu bearrik gerokoagaz. Gaurkoagaz naiko.
- Zerk arritu zinduan geien Europa aldera lenengoz etortetakoan?
- Areoportuan jendea korrika ikustea...Basamortuan area oldartza datorrenean egiten da bakarrik ori. Ikaratu nintzan, ziurki.

- Maleta billa zoazan eta. Ja! ja!
- Bai, ori zan. Bai ta neskak, karteletan, bilusik ikus nebazan. Zer dala ta emakumekiko ain errespetu gitxi erakutsi, itaundu neutson neure buruari...Gero Hotelean iturri bat ur dariola ikusi neban lenengoz neura bizitzan...negargurea emon eustan!
- Ze ugaritasun eta geiekirea, ezta?
- Egunero, neure bizitzako ardurea ura aurkitzea izan zan. An- emenka iturriak urdariola apaingarritzat ikustea, ezin esan alako samintasunak jotzen nau.
- Orrenbete ete da?
- Bai. 1990 amarkadan sekulako legortea gertatu zan: abereak il, gaxotu gihan..Ni amaba urteko mutiko nintzan eta ama il iatan..Niretzat bera zan dana. Kontuak kontatzen eustazan eta ondo kontatzen erakutsi eustan. Nire buruaren jabe izaten erakutsi eustan.
- Zer jaso iatzun zure etxekoakaz?
- Nire aitagandik eskolara joatea ona artzea lortu neban. Egunero amabost kilometroko bidea egiten neban...alix eta maixuak oi bat eskeñi eustan lo egiteko ta andratxu batek jaten emon, bere etxe aurretik igarotzean...Ba nekin nire amak laguntzen eustala!
- Nondik sortu jatzun eskolarako orrelango griña?
- Urte pare bat lenago karpamentu aurretik Paris- Dakar rally igaro zan, eta periodista bateri liburu bat jauzi jakon motxilatik. Nik artu eta emon nautsan bere jaubeari. Beronek saritzat emon eustan esanaz "El Principito"ren istoria bat kontatzen zala. Nik erabaki neban egun baten irakurteko gai izatea lortuko nebala.
- Eta lortu be lortu zendun !!
- Bai eta olantxik Frantzian ikasteko Beka bat eskuratu neban.

- Aor, tuaregtar bat unibertsitatean!  
 - Bai, alan da. Geien amesten dodana, barriz, gameluemearen esnea da...ta egur sua...ta ondartzan onitsik ibiltea are beroaren gañean ... eta izarrak, gaubero begiratuten doguzanak, danak ezbarðiñak izanik aurtzen antzera... Emen, ordea, gaubetan telebista ikusten egoten zarie.

- Bai eta zer da emen okerrera deritzazuena ?  
 - Danetatik eskuartean eukiarren antzu sentitzea. Kexatzen zarie. Prantzian bizitza osoan kexaka zagozie. Banku etxe bategaz betiko lotuz, irabazteko goseti, griñatsu, estu - larri bizi zarie. Basamortuan ez da oztoporik ikusten. Eta da iñor iñori aurrea artu gurean eztabilelako!

- Konta eidazu basamortuko zorion unetxo bat!  
 - Egunerokoa da eguzkia ordu bi ostendu baño lenago: epelduz doanean beroa, otza agertu orduko, gizon ta abereak geldiro geldiro kanpamenturantz datozela. Euren itxurak zeru errosatsu, urdin, gorri, ori, orlegizkoan gauzatzean. Ikusgarri ta ziragarria!


- Lilluragarria, zalantza barik !

- Une zoragarria...Danok sartzen gara karpan eta tea irakiten ipinten dogu. Jesarririk, ixillean, bor- borra dantzugu. Baretasunez sakoneraño beteta, biotz taupadak bat eajiten dauzkue irakin bor- bor soñuegaz.

- Ori bakea!


- Emen, zuena da erlojue...An, denborea da gurea..

Munetxek/ 10- 07.26






# Einsteinen txinparta 8 kontakizunetan



ALBERT EINSTEIN (1879-1955)

Fisika Nobel Saria 1921an

Umoregille onenen mailako buru azkartasuneko zana.



1.- Kazetari batek Einsteinari zera itaundu eutsen:  
-Azaldu daikezu Erlatibitate legea?

Einsteinek erantzun:- Eta zeuk, azalduko zeinke-  
dazu arrautzak zelan frijitu?

Kazetariak arrituta begiratu ostean erantzun eu-  
tson: - Bai, aal dot.

Eta Einsteinek iardetsi.- Ondo da, egizu, baña  
kontuan izan nik ez dakidala zer dan arrautza, zer  
zartagiña, zer olio eta zer sua.

2- Nazismo garaian, Einsteinek, judu izanik, bere  
ikerketak mespretxatzeko naas-maasak jasan bear  
izan zituan.

Orrelango batetan oartu zan bere arrazoen aur-  
kako 100 zientzialarien iritzien liburu bilduma ar-  
gitaratu zala, "Eun zientzialari Einsteinen aurka"  
zeritzona.

Argitalpenaz jakitean zera esan eban:.- Eun? Oker  
banengo, batekin naiko.



3- Frantziako Ikastegi batean Einsteinen itzaldi batean, Paul Valery idazleak itaundu eutson:- Einstein jauna, ideia berezi bat dozunean zer egiten dozu? Koadernoan idatzi ala orri soltean?.

Einsteinek erantzun.- Ideia berezi bat do-danean, ez zait aiztuten.

4-Einsteinek iru naziotasun zituan: alemana, suitzarra eta iparamerikarra.

Bizitzaren azken aldira kazetari batek iri-tartasun aldaketa auk bere ospean eraginik izan ote eben galdetu eutson.

Einsteinek erantzun.- Bai, nire teoriak faltsuak izan balira, iparamerikarrek argudi-atuko leukie neu fisikari suitzarra nintzela, suitzarrak esango leukie zientzialari alemana nintzela, eta alemanek judutar astronomoa nintzela.

5- 1919an Lord Haldane ingelesak Einstein gonbidatu eban zenbait ospetsuekin afaltzera. Orrein artean bere lanaz jakin-min andiko aberatsa zegoan.

Solasaldi luze ondoren, ingelesak Einstein azaldu eutson gitxi zala zerbitzari nagusi barik geratua zela eta oraindik ez e-bala ordezkorik aurkitu.

Einsteinek iardetsi.- Orra, zer barri niretzat... Ikusten Dozoz galtzetako zimurrak?. Ba ia bost urte emon dabez moldatzen.

6- Bilera batean, Marilyn Monroek Einstein topatu eta zera proposatu eutson: -Biok ezkondu eta elkarren seme bat izango gunke. Zer deritzozu nire edertasuneko eta zure adimeneko aurra?.

Einsteinek, serio-ski, erantzun.- Uste dot tamalez alderantziz gertatuko zala: semeak nire edertasuna eta zure adimena izango leukela.

7- Esaten da billera batean Einsteinek Charles Chaplin aktorea topatu ebala. Elkarrizketan, Einsteinek zera esan eutson Chaplini: Beti miretsi izan dot zure arte sena unibertsala izatea; denak miretsi eta ulertzen dabe ta.

Chaplinek erantzun.- Zu askoz errespetagarriago zara: denak miretsi eta ia iñork ez zaitu ulertzen.


8- Esaten da 20ko amarkadan Albert Einstein erlatibitate teoriiaz ezaguna egiten ari zenean, sarritan deitzen ebela unibertsitateetatik itzaldiak emoteko. Gidatzea ez eban gustuko, baña eroso egiten jakon automobilean andik ona bidaiatzea. Eta txoferra alokatu eban. Egun batzuetako bidaiia ostean, Einsteinek txoferrari esan eutson erabat aspergarri litzatekeela bein eta barriro gauza bardiñean jardutea.

- Txoferrak erantzun.- Nai baleu, gau batez alderantziz egin geinke. Zure itzaldia ainbat aldiz entzuna dodanez itzez itz errepikatu daiket.

Einsteinek adostasuna agertu, eta urrengo itzaldira eldu bitartean arropak trukatu eta Einsteinek autoaren gidaritza artu eban. Itzaldi aretora eltzean jakintsuen arteko iñork Einstein ezagutzen ez ebanez trukaketaz ez ziran bape konturatu. Txoferrak ainbeste aldiz entzundako itzaldia emon eban. Amaieran irakasle batek galdera egin eutson.

Noski, txoferrak ez ekien erantzuna, baña bat bateko txinpartaz erantzun eban.- Ba, benetan egin deustazun galdera ain erraza izanik, areto atzealdean dagoen nire txoferrari emongo deustot erantzuteko txanda.

Patxi Otamendik.



# Euskaldunen pelota jokoak.

\* XV eta XVI mendetan pelota jokoan aritzea oizko kontua da Italia, Flandes, Alemania edo Espainian, bai eta Atlantikoren beste aldean be; ze, kronikek diñuenez, an be ba dira pelota jokoak, kultura bakoitzaren arabera ezaugarri besbardiñekoak, baña antzekotasun garbi-garbiz, guztietan osagai erlijiosoa dalako nagusi.

\*Pelota joko oneik zeaztuz joango dira apurka, eta, azkenean, joko-mota bi onartuko dabez: joko laburra eta joko luzea.

\*Onek leku estalduan edo aide librean jokatuko dira, erramintagaz edo erramienta barik.

Frantzian "jeu de paume", Italian "pallone a braccio" eta peninsulan "joko luzea" burutuko dira.

\*Banan banan jokatuten eben, edo alkarren kontra aritzen ziran talde bi eginda, eta epaileek kontrolatzen ebezan jokoak ta apustuak.

\*Pelota jokoak badiruri XVIII menderaño iraun ebalda Espainian. Arrezkero gainbera asi zan. Berakada orretan zerikusia izan eben agintariak, ikuskizunetan gertatzen ziran ordena-nasteen ondorioetan ezartzen ebezan debeku edo mugagaitik.

\*Euskal Errian ez zan desagertu pelota jokoak, bai ordea, zera eraldatu, aztutako kultur adierazpenak bilakatzerano, bere ezaugarri gorenak ezker-ormako frontoia eta plakako jokoak izanik.

\*Gure errietako jendearentzat pelota-jokoak dibertimentua zan, olgeta; eta bide batez inguruko erri ta lurraldeakaz artu emonetan jartzeko modua.

\*Erriak edo ta Villak ikuskizunean parte artzen eben eta udal-erakundeak arduratuten ziran jokalekua egoera onean mantentzen eta erabillera publikorako bideratzen.


\*Alan, pelota jokoak errietako kale ta plazatan kokatu zan, udal-letxetik edo eleizatik urrean, erabillera publikorako, batez be jaiegunetan topaleku ziran tokietan.


\*Frontoia, iñongo zalantza barik, gure erriaren berrikuntzarako gaitasunaren fruitua da, gure kulturak pelotaren joko unibersalari egindako ekarpena.

\*Frontoia, batez be esku-pelota (laxoa, xistera, edo zestoa aitzu barik, tresna ezagunenak aipatzearen), eten bako sormen garapenean bizi dan gizarte baten fruitu dira, aldi berean tradiziotik jasotako ezagutza, begirunez tratatzen dauen gizartearena.

\*(Bilboko Euskal Museoa egindako erakusketatik artuta.)

Agustin ARRIEN.





# Bakioko Toponimia-III

## Toponimiaren azentu arazoa. Adibide praktikoa. Ikerketea (Iñaki Gaminde).

(4 etxe-izen aukeratu. Ikerketea egiteko banandu entzuleen artean orritxu bat izenokaz, bakotzak izen bakotxean azentua uste dauan lekuan imini daian. Alderatu emoitzak errealidadeagaz. Arazoa izkuntzearen erabilkереagaz lotuta dago.)

Toponimiaren agozko erabilkerea zelan dagoan ikusita, azentuerea dala-eta, ikerketa txiki bat egitea bururatu jakon Iñaki Gaminderi. Ikerketa orren barri zeatzagoa eta osoa BAT aldizkariaren 42. zenbakian argitaratu dabe, inork ori alan gura izan ezkerroan. Atal onetan, barriz, Iñaki Gamindek egindako bearraren laburpena baino ez dakargu.

Toponimoen agoskerea eta, batez be, azentuerearen egoerea neurtutea

izan da, bada, ikerketa onen elburua. Euskalerriaren akulturizazinoa eta asimilazinoa, au da, espainierearen interferentzia neurtuteko euskal berbetearen arloetariko bat aztertutea, atan be.

Ikerketea etxeen izenetara mugatu genduan. Eurotan sistemearen azentuerearen ezaugarriak osoan gordetan dira-eta.

Bakiotarrak, euskaldunak, espainieraz eskolatuak izan dira, gizaldirik gizaldi. Alan bada, irakurteko, eura ez dan beste berbeta baten arauak erabilten ikasi dabe. Euskeraz guztiz analfabetoak dira. Beste alderdi batetik, baina, eurak dira euskeraz ondoen egiten dabenak eta informaziorik sinisgarriena emon dabenak. Euskaldun alfabetatuak, ostera, ez dabe euskal fonologiaren arauen arabera irakurten ikasi, euskal berbak espainierearen arau fonologikoen arabera oguzten dabez (era ori jatorra dalakoa dauke, betiko euskaldunen ebakera jatorra baserritarkeriatzat artuten dabela).

Barriemoile berberak etxe baten izena "*bengurjéne*" dala esango deusku, au da, izena inoz idatzita ikusi dauan eran esango deusku "*je*" diptongoa eginda, eta gero, berbetan izen berbera "*bénguridxene*" esango dau berez-berez. Aurkaesan ori fonologia arau ezbardinak erabilkeran sortuten da. Sarritan, euskaldun alfabetatuen artean batez be, izena ain ezaguna ez danean agoskatu bear badabe, espainierearen arau fonologikoen arabera egingo dabe.

Au dala eta, berbadun talde ezbardinen arteko aldea zelangoa dan ikertutea bururatu ekigun. Ikerketeak **etxeen izenetan** azentuerearen ezaugarriak zelan beteten diran erakutsi desuku.

Bakioko euskerearen fonologiaren arau nagusiak urrengo onetan ikusiko dira:

ezpanetakoak	aginetako/albeolokoak	sabaikoak	belokoak	bokalak
p	t		k	i
b	d		g	e
m	n	ñ		u
			a	
f		s	j	
		tz	x/dx	
		tx/dx		
	l	ll		
	r/rr			

Bakioko euskerearen ezaugarri fonetiko-fonologikoen adibide batzuk:

au → eu/u/e (eurra, intxurre, deko)			
ea → ie (semie)	ua → ue (burue)		
ia → idxe (ogidxe)	ie → idxe (ogidxetan)		
iz → ix (eleixie)	it → itx (itxo)	io → idxo (Bakidxo)	iu → idxu (koidxu)
itz → tx (aritze)	tx (itxosoa)	ll (illie)	in → ñ (soiñue)
ind → indx (indarra)	int → intx (imintxen)	ild → ill/ildx (billurre, il dxe)	
ts → tz (aldatza)	tx → tz (etzie)	z → s (saspi)	dx (dxoan)
(n, l, r) ts → (n, l, r) tz (pentzeu, saltzie, bertzoa)			

Agoskera arazo nagusiak onexek izan dira:

- fonema arrotzak erabiltea
- diptongazino eta silabifikazinoa
- azentuerea eta intonazinoa

Fonema arrotzak erabiltea

Etxeen izenetan jatorrizko fonemen ordean espainierearen eraginez alboko onexek erabilten dira:

tz ---> tx	kurtzikene, urkitxe	<b>kúrtzikene, urkítze</b>
ll ---> y	ibiyaurre	<b>ibíllorre</b>
dx ---> j	jauregi, jauregizar	<b>dxáuri, dxáusarre</b>
x ---> s	musikena	<b>múxikene</b>

Orrez ganera espainierearen "z" agineen artekoa be agertuten da:

tz ---> z

arza	ártza
ardanza	ardántza
ormaza	ormátza
bidekurzio	bidékurtzio
urkizaur	úrkitzaurre

s ---> z

azeretxo	asitxó
luzarraga	lúsarra
zubiaur	súbidxorre

## Diptongazino eta silabifikazioa

Beeranzko eta goranzko diptongoen arazoa sano garrantzitsua da. Egon be, berbeta bietan aurkako jokera dagoz egon, onek batera silabifikazioaren arazoa dakar. Adibiderik argiena erriaren izenak emoten deusku. Bertakoak "ba.ki.dxó" ebaten dabe eta "dx" artean sartuteko ez dauken euskaldun askok "ba.ki.o" silabifiketan dabe. Erdaldunak eta erderearen eraginez "bá.kjo" ebaten dabe, au da, silaba bi eta azentua 2] arauaren arabera sartuta. Espainierearen eraginez beeranzko diptongoak apurtuteko jokerea egoten da eta baita goranzko diptongoak sortuteko jokera indartsua be. Bakion, barriz, beeranzkoan beti egiten dira eta goranzkoak apurtuteko baliabideak sortu dira. Alboko adibideetan aurkako jokera bi orreen aldeak:

Bakioko euskeraz	Espainieraz
sai.txú	sa.í.tu.a
séube	se.ú.ba
bén.gu.ri.dxe.ne	ben.gu.rjé.na
u.dxar.té edo ú.dxar.te	u.rjár.te
má.ku.ne	ma.kwé.na
sú.bi.dxo.rre edo sú.bi.dxau.rre	zu.bjáwr

"dx" artean sartzeak silabifikazioari lagunduten deutso, "i+bokala"

daukezan goranzko diptondoak apurtuko dituala:

i+a → idxa (óidxaga)    i+e → idxe (siídxeta)

i+o → idxo (bakidxó)    i+u → idxu (-----)

Beste alde batetik, artikulua singularra bokal amaieradun berbeari geitu ezkerroan ("-ie" sistemea):

-a+a → -ie (neska)    -c+a → -ie (seme)    -i+a → -idxe (ogi)

-o+a → -oa (asto)    -u+a → -ue (esku)

## Azentuerea eta intonazioa

Bakioko azentuerea Bizkaiko iparraldeko (Getxo-Gernika) aldaerearen

barruan dago. Aldaera au doinu azentuduna da, ezaugarriarik garrantzitsuenak oneexek dirala (Gaminde 1999):

Bereizketa lexikoa: morfemak (erroak eta atzizkiak) [+am] edo [-am] izan leitekez, [+am] atzizkiak azentua aurreko silaban iminten dauala.

Berbeak [+am] morfema bat baino geiago badaukaz, leenengoak erabagiten dau azaleko azentuerearen

lekua. Berba orretan eratorpen atzizki indartsurik badago, atzizki orrek oinarri osoaren azentuerea erabagiten dau.

[+am] morfemarik ez badago, talde prosodikoaren azken silabeak artuten dau azentua.

[+am]= azentuduna                      [-am]= azentubakoa

Izen berbera dauken etxe bi, agozko erabilkeran beintzat, azentuaren bidez ezbardinduten doguz:

udxarté (Uriarte)                      údxarte (Uriarte Barri)

Berba bakartuetan edo galdegaigunean dagozanean, H\*L tonua

agertuten da silaba azentudunean. Tonu orregaz batera bigarren

silaban agertuten da H- tonua eta bigarren silabatik aurrera

zabalduten da arik eta H\* tonua jo arte. Azkenean, leenengo silaban %L muga tonua agertuten da. Tonu igokerea lotuta dago azentuagaz.

%L(H-)-H\*L

Espainieraz, ostera, leenengo %L eta bigarren H-tonuen arteko igokerea azentutzat artuteko jokerea dago (azentuagaz tonu beerakadea lotuten da):

la/gunená (sg.)                      la/gú'nena (pl.)                      (eusk.)

lagúnena                      lagúnena                      (esp.)

Izenen transkripzioetan azentua silaba azentudunean markeetan da eta tonua goiko arau orren arabera agertuten da. (Gaminde 1998)

Bakioko etxe izen batzuk doguz urrengook, agozko erabilkeran, atan be. Silaba kopuruen arabera eta azentubako/azentudun bereizketea kontuan artu dogu emengo onetan. Agertuko doguzanak ez dira diran guztiak:

## Izen azentubakoak

o-ó

bastéi	beitxí	goitxí	lorré
mintxú	saitxú	torré	astxó/asitxó

o-o-ó

aldekó	armurú	asutxí	balandá
basarté	basidxó	bekortá	bekotzé
besondá	gabantxó	goiketzé	goikolá
gorrondá	otzatéi	panainé	sabalé
udxarté	ugeldé	urgitxí	usiñá

o-o-o-ó

astxokortá	elespurú	inyarrené	kitroyené
landabasó	torresarré	trabensarré	uribarrí

o-o-o-o-ó

errenteridxé	dolapitxiñé
--------------	-------------

Izen azentudunak

ó-o

árbe	ártza	bénta	bísko
dxáuri	éitza	gárai	séube

o-ó-o

agárre	amétza	ardántza	atxúlo
bartúren	larrábe	olátxu	ormátza
ortúbe	orúbe	saitxútxu	ugérte
urgúru	uribe	urkítze	

ó-o-o

ártetze	bídetze	búturtze	dxáusarre
gáraitxu	gáratei	górtene	górtene
íntxarra	kátxone	lárondo	lúsarra
mákune	órbita	óstiñe	pétxene
pósoa	sáitxune	súbita	súmusu
údxarte	úreta	úreta	úsarta

o-ó-o-o

abároa	agárretxu	algórtane	arítzeta
bastérretze	bidékurtze	elórreta	etzébarri
gastáñeta	godxénetze	ibíllorre	itxúrridxa
mendígune	olábarri	talléridxe	

o-o-ó-o

andramíta	bengoléa	errotátxu	mendiálde
mintxuátze	otzatéitxu	sandxoálde	udxartétxu

ó-o-o-o

álardone	gérekane	kátikene	kúrtzikene
múxikene	pórtuondo	súbidxorre	úrkitzaurre

Etxeen izenetan azentudunak eta azentubakoak dagoz.

25 etxe-izen aukeratu genduzan, silaba kopuru ezbardinen arabera eta lekukoei irakurteko emon geuntsezan, azentu ortografikoa eurak uste izan dabean lekuan iminteko eskabideagaz. Izenotarik 15 baino ez ziran erabili azterketea egiteko, azentuaren arabera:

Garai, Lorrea, Zeuba, Agirre, Artetxe, Basigo, Bidetxe, Gabantxo, Larrondo, Zabala, Zumusu, Larrabe, Urkitzaurre, Uribarri (Uribarribekoa), Uriarte, Olabarri, Mendiguren, Makuena (Erre-menteria), Abaroa, Alardone (Aurrekoetxea), Telleria, Gatikene, Kurtzikene (Gaztañazarreta), Benguriene (Ugartebarri), Iturriaga.

Orreotarik ikerketearen emoitzak jadedesteko onee-kek izan ziran aukeratuak:

o-ó: lorré (azentubakoa)

ó-o: gárai, séube

o-o-ó: basidxó, sabalé, gabantxó (azentubakoak)

o-ó-o: agárre

ó-o-o: ártetze, bídetze, lárondo, súmusu

o-ó-o-o: abároa, talléridxe

ó-o-o-o: álardone, gátikene

Lekukoak lau taldetan bananduta egon ziran: erdaldunak (6), euskaldun barriak (10), euskaldun za-arrak (18): Abadiño (2), Areatza, Arteaga, Aulesti, Bermeo, Derio, Erandio, Larrabetzu (2), Gatika, Gernika (2), Igorre, Jatabe, Lekeitio eta Mungia (2) eta, azkenean, bertako Bakioko gazte taldea (8), azken talde onetakoak Bakioko euskaldun zaarrak dira 19 eta 25 urte artekoak (4 neska eta lau mutil). Danetara 42 lekuko euki genduzan eta 630 erantzun aztertu ziran.


## Erdaldunak

Bertako lekukoak 90 aukeratatik 14 ondo erantzun ebezan, au da, %15,5. Espainierearen 2] arau nagusiari jarraituz, o-ó taldean "lorré" aukeratu bearrean, "lórre" aukeratu eben. Beste alde batetik, ó-o taldean 2] arau ori kontuan artu ezkerroan, danak ondo egin bear ebezan, baina, "gárai" izenaren kasuan azken diptongodun silabak astuntzat artuteko jokeragaitik "garái" idatzi eben eta "séube" izenaren kasuan "eu" diptongoa apurtuteagaitik ez eben ondo egin eta "seúba" aukeratu eben. Iru silabako izenetan 2] arau



orregaz bat datorren kasu bakarrean "agárre" baino ez eben aparau. Ostera, o-o-ó zein ó-o-o kasuetan ez eben bein be asmau. Lau silabakoetan, o-ó-o-o kasu batzuetan asmau eben eta, barriz, ó-o-o-o kasuan baten be ez eben ondo egin, azentuera azken au espainieraz ezinezkoa da eta. Talde onetan espainierearen 2] araua nagusitu zan.

	Ondo	%
o-ó	1	16,66
ó-o	3	25
o-o-ó	0	0
o-ó-o	6	100
ó-o-o	0	0
o-ó-o-o	4	33,33
ó-o-o-o	0	0




## Euskaldun barriak

150 aukeratatik lekukoak 24 baino ez ebezan ondo erantzun, au da,

%16. Au da, o-ó taldean 3 ondo erantzun ebezan, ó-o taldean 6 ondo, o-ó-o taldean 10 ondo, o-ó-o-o taldean 5 ondo eta besteetan bapez ondo.

	Ondo	%
o-ó	3	30
ó-o	6	30
o-o-ó	0	0
o-ó-o	10	100
ó-o-o	0	0
o-ó-o-o	5	25
ó-o-o-o	0	0

Alandaze, euskaldun barrien emoitzak eta erdaldunenak alkarregaz alderatu ezkeron, alde agirikorik ez dagoana ikusi genduan. Beste era batera esanda, euskaldun barriak espainierearen arauak erabilia irakurten dabez izenak. (%tan)




## Euskaldun zaarrak

Talde onetako lekukoak 270 aukeratatik 48 ondo erantzun ebezan, au da, %17,77. Bizkai barruko lekukoak izanda, (azpi)euskalkiak daukan eragina ikusteko, emoitzak eskualdeka atondu genduzan. Mungialdeko euskaldunen emoitzak kenduta, bertan arean obetxuak ziran eta, ganerako eskualde eta errietako emoitzak sano makalak izan ziran. Bakio Mungialdeko erria da eta Mungialde osoan sistema berbera erabilten dogu. Antza, euskaldun on-onak diranak be nekez igarriko dabe zein dan toponimo ezezagunaren agoskera arteza.

	Mungialdea	Busturialdea	Lea-Artibai	Txorierrri	Arratia	Durangaldea
o-ó	2	1	1	0	1	0
ó-o	4	2	2	4	1	2
o-o-ó	2	0	0	0	0	0
o-ó-o	4	3	2	4	1	2
ó-o-o	2	3	0	0	0	0
o-ó-o-o	0	0	2	1	0	1
ó-o-o-o	1	0	0	0	0	0
Guztira	15 (%25)	9 (%15)	7 (%23,33)	9 (%15)	3 (%10)	5 (%16.66)

Edo beste era batera (%tan):




### Bakiotarrak

Bakioko gazte euskaldunen egoera ikertu gura genduan. Lekukoetan batek baino ez eban %100ean ondo erantzun, osterantzekoen emoitzak, barriz, ez ziran baikor-baikor egoteko modukoak. 120 aukuratetik 55 ondo erantzun ebezan, au da, %45,83. Au da, o-ó taldean 7 ondo,

ó-o taldean 8 ondo, o-o-ó taldean 10 ondo, o-ó-o taldean 5 ondo,

ó-o-o taldean 13 ondo, o-ó-o-o taldean 5 ondo eta ó-o-o-o taldean 7 ondo. (%tan)




### Guztiak

(%tan)

	Erdaldunak	Euskaldun barriak	Euskaldun zaarrak	Bakiotarrak
o-ó	16,66	30	27,77	87,5
ó-o	25	30	41,66	50
o-o-ó	0	0	3,7	41,66
o-ó-o	100	100	88,88	62,5
ó-o-o	0	0	6,9	40,62
o-ó-o-o	33,33	25	11,11	31,5
ó-o-o-o	0	0	2,77	43,75
Guztira	15,55	16	17,77	45,83


Edo beste era batera:





Alan bada, ondorioak sano arduragarriak dira. Batetik, erdaldun eta euskaldun barrien artean ez da alderik ikusten. Bestetik, ganerako euskaldun zaarren emoitzak ez dira askozaz obeak. Bertako gazteak be bertako lekuizenen azentuera galduten asi dira (bizimoduaren aldaketea, bertako berbetearen galdumendia, berbeta transmisinoan etena, ...)

**Iniaki MARTIARTU**

2010eko jorraila



# Zazpi utsak



**B**

**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

## IPUIN SARIKETA

(BILBAOKO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearako dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZERen argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZERen agertuko da, Urterrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. <sup>a</sup>	300 euro	4. <sup>a</sup>	120 euro
2. <sup>a</sup>	240 euro	5. <sup>a</sup>	60 euro
3. <sup>a</sup>	180 euro		
- Ipuñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.
- Mesedez bialdu CD edo disketea

**EUSKERAZALEAK**

## ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela, an daukadan     zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



ator, ator, mutil etxera  
gaztainak ximelak jatera  
gabon gaba ospatuzeko  
aitaren ta amaren ondoan.  
Ikusiko duk aita barrezka  
ama ere poz atseginez.

Eragiok mutil aurreko dambolin orri  
gaztainak erre artean,  
gaztainak erre artean,  
txipli, txapla, pun.  
Gabon gaba pozik igaro daigun.